hiruka

178. zenbakia
NEGUKO BEREZIA • 2021eko abendua



GABONAK 2021

Gaitz guztien gainetik... Zorionak!

ABENDUA - URTARRILA
EREAGA ARETOA

MUXIKEBARRI

HAUR ANTZERKIA



CRUSOE
MARKELIÑE

ABENDUAK 28 ASTEARTEA 18:00 / 6€


MUSIKA



McENROE

URTARRILAK 7 OSTIRALA 21:00 / 10€

MUSIKA



AMOUR ET TOUJOURS
RUPER ORDORIKA

URTARRILAK 15 LARUNBATA 19:30 / 15€

UMOREA



NEKATUTAK
ANTTON TELLERIA

URTARRILAK 28 OSTIRALA 21:00 / 6€

94 466 01 23
kulturetxea@getxo.eus
www.getxo.eus

Getxo bizi ezazu
Getxo KULTUR ETXEA bizi ezazu
Bizkaia foru aldundia diputación foral
EL CORREO
SALMENTA / VENTA
Kutxabank sarea / Red Kutxabank
Sarrera salmenta: Venta de entradas: www.kutxabank.es
Orotarako kutxazainak Cajeros multiservicio

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Maria Gorostiola
Erredakzioa: Iker Rincon Moreno, Hodei Torres, Ander Zarraga
Diseinua: Artefakto
Administrazioa: Ziortza Merino
Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Iratxe Ormatza Imatz eta Alex Orbe.
Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 5.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak

Getxo bizi eraza
Leioa Idala-Ayuntamiento Euskara Zerbitzua
Berangoko Udala
Barrikako Udala
Gorlizko Udala
Urdulizko Udala
Lemoizko Udala

Bizkaia foru aldundia diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Aurkibidea

ERRETRATUA
Angula-arrantzaleak 4

LEHEN/ORAIN
Uribe Kostako herriak, nola aldatu dira? 5-9

KALEKO KATU BATEN ETXEKO IBILERAK
Ipuina 10-11

MUNDUKATUAK
Nola bizi dituzte Gabonak beste herrialdeetan? 12-15

UMEENTZAKO OPARI-PROPOSAMENAK 16-17

***MADE IN* URIBE KOSTA**
Eskualdeko artisauak 18-21

HELDUENTZAKO OPARI-PROPOSAMENAK 22-23

GASTRONOMIA-GIDA
Gabonetako proposamenak 24-27

FACEGUK
Gabontako argiak, bai ala ez? 28-29

GABONETAKO AGENDA 30

OLENTZERO ETA MARI DOMINGIRENTZAKO ESKUTITZA 31-32

2021ARI AGUR
Urteari begirada, hamabi bertsotan 33-46

IRAGARLEEI ESKER ONA 48-49

HIRUKIRA OLGETAN Umeentzako denbora-pasak 50-55

HIRUKALAGUNENTZAKO ZOZKETAK 56-57

HIRUKAZALEEI AGURRA 58



Angel Muela Angula-arrantzalea

«Betidanik arrantzatzen ditudan arren, beti erakusten didate zerbait berria»



Angulak Gabonetako jakirik preziatuenak eta garestienak izango dira seguruenik, baina Angel Muelarentzako horiek arrantzatzea bizitza osoko zaletasuna da.

TESTUA ETA ARGAZKIA: **ANDER ZARRAGA** ▶

Angulak neguko gau hotzetan arrantzatzen dira, ibaietako hertzeetan; Angel Muela erandioztarra horretan aurkitu dugu, Arrontegiko zubiaren azpialdean. Dioenez, angulak euri asko egiten duenean ibaian gora egiten dute, itsasotik, ur geza bilatzen. Muelak bizitza osoa darama berarentzako zaletasun bat dena praktikatzen: «45 urte baino gehiago daramatzat honetan, 14 urte nituenetik, baina niretzat hau hobby baten modukoa da, arrantza egiten dutenek bezala». Legalki, angula-sasoia azaroaren 15etik urtarrilaren 30era bitartean dela azaldu du, baina, lehen, irailetik maiatzera ere hartu zitezkeen; «angulen zikloa errespetatzeko murriztu da arrantza».

Lizentzia urtez urte berritzen du; horri esker, gehienez, kilogramo bi hartu ditzake egunean. Hala ere, lizentziarik gabe arrantzatzen dutenak ere badaudela dio, baina Natura Babesteko Zerbitzuak (SEPRONA) gero eta kontrol gehiago egiten ditu, eta, bere ustez, momenturen batean, angularen arrantza profesionalizatu ere egingo dute. «Hori gertatzen denean, arrantza-aparailuak eskegi eta emazteagaz etorriko naiz arrantzan daudenak ikustera».

Zaletasun arriskutsua ere dela onartzen du; izan ere, urte hauetan hirutan erori da ibaira, baina ez zaio inoiz ezer larririk gertatu. «Zubian plaka bi daude, hemen ito ziren gazte bi oroitzeko; arazoa da uretara erortzean jendea urduri jartzen dela; hori da egin behar ez dena».

Angulak ezezagunak bezain preziatuak dira, «ez dira arraienen modukoak, ez dakigu zelan funtzionatzen duten, eta bizitza osoa horiek arrantzatzen daramadan arren, egunero erakusten didaten zerbait berria». Muelak onartzen du gero eta pena gehiago ematen diotela: «Nagusia egiten egongo naiz, baina ibaian gora egiten duten esfortzuaren ostean lastima ematen dit harrapatzeak». ◀

Getxo Itzubaltzeta/Romoko etxe merkeak





Berango Sabino Arana kalea





ITURRIA: IMANOL RODRIGUEZ «MASTIGANE»

Gorliz Hondartza eta ospitalea





ITURRIA: GORLIZ. HERRI BATEN ALDIUNEAK

Barrika Udaletxea eta eliza






ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA


Leioa Elexalde etorbidea






Sopela Atxabiribil hondartza





Urduliz Udalerria, Santa Marinatik





ITURRIA: GARIKOITZ ESTORNES ZUBIZARRETA


Erandio Altzagako Obieta kalea





ITURRIA: JAI-TOKI SD

Lemoiz Urizar auzoa





Plentzia Geltokiko zubia





ITURRIA: ELIXABETE HORMAZA

Kaleko katu baten etxeko ibilerak

Lana daukat izena. Pentsatuko duzue, a zelako izena katu batentzat! Eta ez pentsatu, e! Nik ez dut ia lanik ematen, txukuna naiz ni, gero! Lehen beste etxe batean bizi nintzen, eta hango neskatoak jarri zidan izena, gustuko zuen-eta, antza, Lana izeneko abeslari bat. Beste hiru katu ere bazeuden etxe hartan, eta oso ondo pasatzen genuen olgetan.

Izan, kaleko katua naiz ni. Behinola, euli baten atzetik joan, eta hura harrapatu guran, galdu egin nintzen. Halako batean, auto bat ikusi nuen, usaintzera joan, eta igarri nuen bero zegoela, eta ni, berriz, hotzak. Fir-fir zebilen haizea zuhaitzeko hostoen artean. Auto ondoko petrilera igo, eta handik salto egin nuen kapotera, eta barruan kiribildu nintzen urrumaka, loak hartu arte. Baina zer eta burrunbada batek iratzarri ninduen, eta dar-dar batean utzi zidan gorputza. Autoa mugitzen hasi zen, eta neu barruan ikaratuta, ezin irten: mauuu, mauuu, mauuu, amari deika. Ezin nion amari entzun, ostera. Lekutan nengoen-eta. Burrum-burrum betean joan zen autoa, halako batean gelditu arte. Eskerrak! Zer egin pentsatzen nuen bitartean, azala miazkatzen hasi, eta iaj! Hura nazka! Likatsu zegoen, beltz-beltza. Zer egin jakin ez, eta miauka hasi nintzen. Gizon baten esku handiek atera ninduten kapotetik, eta katu zaleen etxe hartara eroan ninduen. Han ondo-ondo garbitu zidaten gorputza, gauza likatsu beltz hura kendu, eta jaten eta edaten eman.



Orain beste etxe batean nago, neska bategaz eta gurasoakaz. Neskak laztanak egiten dizkit buruan, tripan, bizkarrean, gorputz osoan. Altzoan hartzen nau, eta gero jaurti, nik salto egin dezadan; estu hartzen nau besoetan ere bai, eta batzuetan, belarriak jaisten dizkit, eta ijiji eta ajaja hasten da. Aurpegi barregarria izango dut, segurutik. Jolasteko gogorik ez badaukat, alde egiten dut, eta segitzen badit, ezkutatu egiten naiz. Deika hasten da: Lana, biz-biz-biz. Txaka-txaka entzuten dut haren ibilera, eta neure artean, jijiji egiten dut ezkutalekutik.

Gauean, piztu egiten naiz, eta orduan daukat nik gogo gehien olgatzeko, baina ohean sartzen dira denak, berba apur bat, irakurri eta lo egiten dute. Ordu asko egiten dute lo: oso arraroak dira. Nik zatika egiten dut lo, paseo bat egiten dut etxean, leihotik begiratzen dut kalera, neskaren gomazko sugeakaz jolasten dut, edo pilota txikiakaz. Boligrafoak eta arkatzak ere gustatzen zaizkit, baina batzuetan ez ditut aurkitzen. Gorde egiten dizkidate, antza.

Ni etxean nago beti, baina beste hirurak joan-etorriak egiten dituzte, eta arratsaldera arte ez dira etortzen. Beraz, libre nabil etxe osoan; batez ere, uzten ez didaten lekuetatik, jijiji, esaterako salto egiten dut aulkira, gero mahaira, eta handik sukalde-gainera. Usain egiten diot frutari, baina jan ez, ez zait gustatzen-eta. Lapikoari tapakia kentzeko ahaleginak eta bi egiten ditut, baina ezer ere ez. Teknika aldatu beharko dut. Inoiz jatekoa uzten dute plater batean, sorki baten azpian, eta nik muturra sartu eta probatu, jakina. Kafea ere probatuta nago, eta ur gozoena euren edalontzietatik edaten dut. Paperak, Hiruka eta boligrafo bat egoten dira izkina batean. Hirukaren papera biguna da, eta ras-ras apurtzen dut hortzakaz. Asko gustatzen zait. Boligrafoa behearen gainera jaurtitzen dut, eta gero neuk salto egin, hankagaz boligrafoa bota, eta bila joaten naiz, hamaika aldiz egin dezaket batere aspertu gabe.

Inoiz armairuetan sartzen naiz, ahaztu egin dutelako armairuko atea ixtea, eta haien arroparen gainean egoten naiz ni urrumaka. Etxera sartzen direnean, biz-biz, Lana? deitzen didate, eta luzaroan ibiltzen dira batetik bestera kirriz-karraz, ni aurkitu arte. Jijiji.

Hotz egiten du, etxean ez daudenean. Ilea daukadanez, uste dute, antza ez dudala behar berogailurik. Baina neu ere hotzak hilik egoten naiz, eta edredoi azpian sartzen naiz. Gauean ez didate uzten logelan sartzen, ostera. Ez diedala lo egiten uzten. Hori esaten didate. Zuek entzun duzue inoiz katu zarpailik? Ez, ezta? Ba, etxekoei ez zaie gustatzen ni euren buru inguruan ibiltzea, edo euren gorputz gainean hankak jartzea, edota kiribiltzea haien artean, gozotan. Batzuetan, neskatoak uzten dit beragaz lo egitea. Neskatoagaz, bai, katuen zerua! Eta beti begiratzen du ea urik edo jatekorik daukadan, eta dena edan eta jan badut, gehiago ematen dit. Kaka- eta txiza-lekukoa ere aldatzen didate. Aldatutakoan, usain gozoa sudurretik sartu, eta ta, txiza egiten dut. Atseginagorik!

Orain sukalde-gainean nago, eta leihotik aparkaleku bat eta fabrika abandonatu bat ikusten ditut. Katu bi agertu dira: katarra, eta amaren antza daukan kateme bat, eta gero beste katu bat. Saltoka ibili dira autoen artean, elkarregaz jolasten. Udaberrian, neu ere jaitsiko naiz hara haiekaz olgatzeko. Pentsatu beharko dut zelan egin, bigarren solairuan bizi naiz-eta.



ILUSTRAZIOA:
ALEX ORBE



Iratxe Ormatza Imatz

Bakiotik Ingalaterraraino egin nuen buelta, soziologia ikasteko, York eta Kenteko unibertsitateetan. Handik etorri, eta barruko bor-borrari ubidea eman nion. Lehen argitalpenak kronika-liburu baten antza hartu zuen, mendebaldeko euskaraz idatzita. *Hegoak* dauka izena liburuak, eta Hego Ameriketan egindako bidaiari buruzkoa da. Handik hona, 29 ipuin argitaratu ditut helduentzat, Idatz&Mintz-en batez ere. Honakoa seigarrena da HIRUKAn. Ea alabari bezainbeste gustatzen zaizuen.

Gabonetako ospakizunak, mun

Mirza Zaldivar | Honduras



«Erlijioak eta familiak garrantzi handia du garaiotan»

Erlijioak eta familiak berebiziko garrantzia du Hondurasen, Gabonetako garaian batez ere. Gabon-kantak kalez kale entzuteaz gainera, Jesusen jaiotzak edonon ikus daitezke han, eta oso ohikoa da jendearen muntaketak egitea eta horien inguruan jan-edana konpartitzea. Izan ere, berton bezala, asko eta asko jan ohi da garaiotan han, «kantitate industrialetan», diosku Mirza Zaldivarrek; «aurreko egunetan, gau eta egun ematen dugu janariak prestatzen, familia eta lagun asko batu egiten garelako». Ohikoena txerri edo oilaskodun *nacatamal*ak dira, platanoen orrietan bilduta, baita arto gozoen *montura*k ere, besteak beste. Edatekoari dagokionez, alkoholdun zein alkoholik gabeko askotarikoak dastatzen dituzte, hala nola *rompopo*a eta pontxea.

Berton bezala, abenduaren 24an eta 31n afariak egiten dituzte, eta, azken gau horretan, bolanderaz betetako panpina bati su ematen diote urtearen amaierako azkenengo kanpai-hotsaren aurretik.

Opariei dagokienez, Zaldivarrek akorduan du umeen ilusiorik handiena dela arropa berria erostea garaiotan, «eta hori estreinatzea, nola ez». Bestalde, familiaren ekonomiaren arabera, ohikoa izaten da ere opariren bat edo beste ematea etxeko txikienei.

Cristhiana Mercado | Nikaragua



«*El viejo* panpina erretzen dute urtea agurtzeko»

Nikaraguan, Gabonak familiagaz igaro ohi dituztela dio Cristhiana Mercadok. Erandion bizi arren, bere sorterriko tradizioak mantentzen dituen Kaixo Nika Elkarteko kidea da bera; horrek helburu bikoitza duela diosku: alde batetik, etorkin nikaraguarrak euskal gizartean sartzen laguntzea, eta, bestetik, emakumearen ahalduntzea sustatzea.

Sorterrian ospatzen dituzten jaien artean, abenduaren 8an, *La Griteria* izeneko jaia dute. Egun horretan, jendea kalera ateratzen da, eta oihuka galdetzen du: «Zerk eragiten du hainbeste poz?»; horri erantzunez, etxeetatik «Mariaren kontzepzioa!» oihukatzen diete. Bestalde, abenduaren 31n, familiagaz elkartzen dira afaltzeko, eta, gau horretan, paperez egindako gizon zahar bat erretzen dute, *El viejo* izenekoa; «urte zaharrari agur esateko modu bat da, eta kale bakoitzean bost edo sei erretzen dira, Nikaraguan oso ohikoa baita». Jatekoari dagokionez, ohikoena betetako solomoa edo oiloa dela diosku. Horretaz gainera, arto-irinagaz egindako *tamal*ak edo arroza eta haragia duten *nacatamal*ak jatea ohikoa da. Era berean, oso ohikoa da gozokiak ere jatea, eta horren adibide da *ayote* izeneko kalabaza egosia ezti urtuagaz jatea.

duan

Abendua eta urtarrila artean, urtearen amaieragaz, Gabonak ditugu hemen: tripa-festak, familia zein lagun artean; elizkizunak, opariak eta jaia. Munduko beste leku askotan ere garaiok ospatzen dituzte, baina, zelan?

Delia Ester Vera Araujo | Paraguai



«Gabonetako ospakizunetan ezin da barbakoa falta»

Paraguain, Gabonak jai jendetsuak izan ohi dira; familia guztia elkartzeko ohitura dute, petardoak botatzen dituzte eta musika jartzen dute. Delia Ester Vera duela lau urte etorri zen Uribe Kostara, eta, gaur egun, egunok bere Erandioko lagunakaz ospatzen dituela dio, familiagaz elkartzea ez delako erraza.

Bere sorterrian, Gabonak ospatzeko hainbat ohitura dituzte; berbarako, iruditxoakaz egiten den Jesusen jaiotza ere jartzen dute, baina hangoari frutak, barazkiak eta *chipak* –mandioka almidoiagaz, animali-kopieagaz, gazta eta arrautzagaz egindako gaileta modukoak– jartzen dizkiote, bisitariek ere har ditzaten. Bestalde, ohikoak diren jaki eta edari asko daudela ere azaldu du, besteak beste, barazkiez eta arrautza egosiagaz betetako okel biribilkaria, *Matambre* izenekoa, eta, horretaz gain, mihia ozpinetan, paraguaiko zopa. Baina, denen artean, barbakoa da erregea: «Barbakoa ezin da falta». Batzuetan, *chipa* haragiagaz ere betetzen dutela dio Verak.

Edariari dagokionez, oso ohikoa da ardoa eta fruta txikitua edatea; horri *Clericó* deitzen diote. Sagardoa ere edaten dute Paraguain, «baina hangoa hemengoa baino gozoagoa da», azaldu du Verak.

Ina eta Teona Grdzelishvili | Georgia



«Sobietar Batasuna zegoenean, Gabonak debekatuta zeuden»

Georgian, Gabonak urtarrilaren 7an ospatzen direla diote Ina eta Tina Grdzelishvili ahizpek. Herrialdea Sobietar Batasunaren menpe egon zenean, jai kristauak debekatuta zeuden eta, beraz, «tranpa baten modukoa egin zen Gabonak ospatu ahal izateko». Hala ere, kristau ortodoxoak diren beste herrialdeek abenduaren 25ean ere ospatzen dituzte Gabonak, eta berriz horretara bueltatu gura dutenak daudela diote. Biak ala biak hainbat urte daramatzate gurean bizitzen, eta beraien semeak ia euskaldunak direnez, Olentzeroren etorrera ere ospatzen dute hemen.

Georgian, Eguberri Egunean, lehendabizi, familiagaz elkartzen dira bazkaltzeko, eta, ondoren, lagunakaz ateratzen dira kalera, hainbat kontzertu eta ospakizun egoten baitira. Gurean bezala, sasoi honetan ohikoak diren hainbat jaki ere dituzte: *khachapuri*, gaztaz betetako opiltxoak; turroiak, *Satsivia*, indioilarra intxaur saltsagaz... Hala ere, deitoratu dute hemen ez dela erreza horietarako osagaiak aurkitzea eta, ondorioz, ez dituzte plater horiek egiten. Bestalde, ardoa ezin da falta Georgiako Gabonetan; izan ere, edari horren herrialdea dela azpimarratu dute: «Ardoa Georgian jaio zen duela 8.000 urte, eta, gaur egun, oraindik antzinako eran egiten jarraitzen da; pentsa, 500 mahats mota baino gehiago ditugu!».

Ane Otalora | Eskozia



«400 urtez, Gabonak debekatuta egon ziren hemen»

COVID-19aren pandemia dela eta, aurtengoa lehenengo aldia izango da Ane Otalorak Gabonak Glasgown ospatuko dituena. Dioenez, hangoak pelikuletan ikusten denaren «antzeko Gabonak» dira, Euskal Herrikoakaz alderatuta nahiko desberdinak. Gogoan duenez, Eskozian debekatuta egon zen jai hau 400 urtez, protestantismoa zela-eta, eta oraingoak modu oso unibertsalean ospatzen dituzte. Halere, bertako ohiturak ere badituzte: Otalorak azaldu duenez, Gabon Zaharrean *Hogmanay* festa egiten dute, paganismoari lotutakoa, hain zuzen ere; jatekoari dagokionez, hirugiharragaz inguratutako saltxitxak, ardoa, *honey roast parsnips* (eztiagaz erretako txiribiak) eta Bruselako azak izan ohi dituzte mahaiaren gainean; eta tradizioa izan ohi da Santa Clausen galtzerdietan mandarinak sartzea, «opari bezala». Dekorazioari dagokionez, denok imajina dezakeguna topa daiteke bertan: argiak, giraldak, dekoratutako zuhaitzak...

Sara Álvarez | Brasil



«Hondartzan egiten zaio ondoetorria urte berriari»

Sara Álvarezen auzokideek diotenez, AEBetako ospakizunak bezalakoak egiten dituzte Brasilen, «baina bertsio pobrean». Abenduaren 24-25eko egunak bertokoak bezalakoxeak izan ohi dira bertan, eta *peru com farofa* (indioilarra labean errea maniokaren irinagaz barruan eta espeziatua) da janari nagusia; Gabon Zaharrean, aldiz, *Reveillon* ospatzen dute, lagunakaz, hondartzan, arropa zuriak jantzita musikagaz dantzan. Bolanderak eta su artifizialak ere ohikoak dira egun horretan. Berezitasun gisa, Álvarezek dio urte berria hasten denean zorte onekoa dela zazpi olaturi salto egitea, eta, azaldu duenez, bitxia egiten zaio nola egiten zaion eskaintza itsasoaren jainkosari: «Landareak edo objektu berezien bitartez, zorte ona eskatzen zaio; Afrikako ondarea irudikatzen duen ohitura da». Aurtengoa izango da bere lehenengo aldia Gabonak atzerrian emango dituena, eta amaren kroketak faltan botako dituela aitortu du.



Mikel Montes | Alemania



«Jaiak amaitzean zuhaitzak terrazatik botatzen dituzte»

Abenduaren 6an ematen diete hasiera Gabonei Alemanian, *Nikolaustag*, Santa Klausen Eguna, delakoagaz. «Txokolatea oparitzen da egun horretan, umeei bereziki», azaldu du Montesek. Hortik aurrera, ospakizunak bertokoaren modukoak direla dio: «Familiak elkartzen dira abenduaren 24tik 26ra, azken egun hori jai eguna delako ere». Ondoren, abenduaren 31n, jai giroan eta lagunakaz ospatzen dute *Silvesternacht* jaia; gau horretan, piroteknia da nagusi: «Ikaragarria da zenbat bolandera botatzen dituzten hemen». Argiakaz eta benetako zuhaitzakaz dekoratzen dituzte kaleak eta etxeak; azken horiek, ospakizunak amaitzen direnean, terrazatik jaurti ohi dituzte, eta ohikoa izaten da kaletik zuhaitzen bat botata topatzea apirilera arte, «zabor-zerbitzua oso motela delako Berlinen». Garaiotan ere oso ohikoak dira merkatuak; «asko daude Alemanian, eta bereziki *Glühwein*a edaten da: ardo beroa».

Arrate Sainz de la Maza | Danimarka



«Euskal Herrian baino gehiago bizi dituzte Gabonak»

Gabonak hasi aurretik, familia eta lagunakaz elkartzen dira danimarkarrak arratsalde batez Gabonetako dekorazioak prestatzera, eta *gløgg* –ardo beltz beroa– eta *æbleskriver* jatera. Gabonen aurreko lau domeketan kandela bana pizten dute, eta etxeko txikienek opariak jasotzen dituzte. Horren harira, *Pakkeleg* izeneko jolasa nabarmendu du algortarrak: «Opariak borobil baten erdian jartzen dira, eta jendeak multzotik hartzen ditu dadoan sei bat ateratzen duenean. Opari denak banatutakoan, bigarren txanda bat dago, eta sei ateratzen duenak opariak lapurtzen ditu. Ondoren, denbora amaitzean, opariak irekitzen dituzte». Lantokietan ere jolasak egiten dituzte, *nisse* izenekoak: «Partaide bakoitzak lagun ezkutu bat dauka, eta oparitxoak, edo putakeriak ere, egiten dizkiote elkarri hilabete osoan zehar nor den nor esan gabe». Orokorrean, De la Mazak ondorioztatu duenez, garrantzi handia ematen diote Gabon garairi han.





Bizipoza pizteko aukerak


Itxas-ikus Liburu eta paper-denda

Torrene Kalea, 2. GETXO
Tel.: 944 911 427
info@kattalinarropa.com
www.kattalinarropa.com

1. **Senda Belarrak** 25 €
2. **Animalien liburu handia** 21,50 €
3. **Las jirafas no pueden bailar** 19,95 €







Arbi Errealitate areagotuan oinarritutako liburu elkareragileak

Iker Burguerak egindako lanak
concatc@arbibook.com
www.arbibook.com

4. **ARBI 1, 2, 3 eta 4 zenbakiak** 17 € ale bakoitzeko
5. **LORA letrak lantzeko liburua** 17 €
6. **ARBI koloreztatzeko liburua** 12 €









Olentzero eta Mari Domingi laster hasiko dira etxez etxe opariak banatzen, baina, horren aurretik, beraiei aukeraketan laguntzeko hainbat ideia dakarzkizuegu orriotara. Baietz horietako bategaz etxeko txikien lilura piztu!

Oveja creativa Diseinu grafiko, ilustrazio eta web-zerbitzuak

Tel.: 946 533 095 / 639 922 258
hola@ovejacreativa.com
www.ovejacreativa.com



7 **Martin, Lea eta Ganbarako Liburu Magikoa**
14,99 €

8 **Martin, Lea eta denboraren Harria**
14,99 €

Trikimailu Mahai- eta rol-jokoen denda

Kresaltzu kalea, 14. GETXO
Tel.: 646 427 618
trikimailu.jolasak@gmail.com







9 **Candy Crush**
24 €

10 **Fabulas de Peluche**
63 €

11 **Princesa Jing**
32 €



Bertakoak, eta berton eginak



ALMUDENA ECHEVARRIA | GETXO
Arrainen laminak

«Arraina altxatu arte ez dakit nola geratuko den, eta beti da desberdina»

Japonian antzinatik erabiltzen den *Gyotaku* izeneko teknika baliatuta, Almudena Echevarria getxoztarrak arrainak inprimatzen ditu. Oilarrak, erreboiloak, zapoak, sardinak edo txelbak tintan busti eta paperean jartzen ditu, arrain horien kopia paregabeak sortuz. Azaldu duenez, iraganean, jende gehienak irakurtzen ez zekienean, azoketako produktuak identifikatzeko, horiek tintagaz busti eta irudiak paperean jartzen zituzten, «hartara, arraina tamaina errealean ikus zitekeen, eta xehetasun guztiak nabaritzen zitzaizkien»

Echevarriak, gehienetan, tinta beltza edo urdina erabiltzen du paper zuriaren gainean, baina urre- edo zilar-koloreak ere erabiltzen ditu atzealde ezberdinakaz, «oso abstraktua geratzen da, eta nik arrainakaz egin arren, beste mila gauzakaz ere berdina egin daiteke». Kontatzen duenez, arrain berezi hauek lamina edo koadroetan jartzen hasi bazen ere, jendeari hainbeste gustatu zitzaizkion, orain, jantzietan eta bestelakoetan jartzen hasi dela.

Sortzen dituen produktuak azoketan saltzen ditu, baina, horretaz gain, Sopelako Cienpies eta Plentziako Makuto zapata-dendetan ere ditu salgai. Dioenez, txelba arraina bihurtu da bere lanaren logoa.





ARKAITZ MADARIAGA | GETXO
Amaknives, etxean egindako labanak

«Sukaldaria naiz ogibidez, eta hortik datorkit aiztoak forjatzeko grina»

Sukaldari batek inork baino hobeto jakin ohi du zer-zelako garrantzia duen labana on batek sukaldean. Arkaitz Madariagaren kasua da hori; ogibidez kozinatzeko sutegien artean dagoen arren, duela hiru urte forjako suaren ondoan, mailua eskuan, bere aizto propioak ekoizteari ekin zion. Dioenez, labana japoniarrak sortzen ditu, eskuz egindakoak; askotarikoak: *bunka*, *kiritsuke* eta *sushi*-a edo *sashimi*-a egitekoak.

Madariagak azaltzen duenez, orain hamar urte bururatu zitzaion bere aizto propioak egitea. Orduan hasi zen informazioa biltzen, eta ganibet txikiak egiten. «Hasieran, lagunentzat egiten nituen, baita niretzat ere, lanean erabiltzeko», diosku. Urterik urtera, baina, forjatzaileen munduan sartzen hasi eta, duela hiru urte, propanozko forja txiki bat erosi zuen. Ordutik, Instagram bidez (@Amaknives) bere produktuak saltzen ditu, enkarguz. Karbono altua duen altzairua erabiltzen du aiztoak egiteko, eta damaskoa zein bestelakoak egiten ditu horiei forma emateko. Dioenez, 70 eurotik aurrera saldu ohi ditu bere lanak, «baina norberak gura duenaren arabera prezio bat edo beste izan dezake labanak». Halere, denen artean gehien saltzen dituena *kiritsuke*ak dira: «Denetarako balio dute».



Kate handi eta kontsumo azkarretik ihesi, material naturalez eta kalitate handiko lehengaiez egindako produktu ederrak sortzen dituzte eskualdeko hamaika lagunek. Hona hemen artisau horien lagin txiki bat.



ROCIO VERGARA | GORLIZ
Pelusas de Algodón

«Kolore asko erabiltzen dut, nire helburua mundua kolorez betetzea delako»

Kolorea eta bizitasuna igortzen dute Rocio Vergara gorliztarrak sortzen dituen amets-harrapatzaileek. Azaldu duenez, duela urtebete hasi zen kakorratza ikasten eta, amets-harraparien diseinuak ikusi zituenean, berehala maitemindu zen horiekaz.

Langabezian geratu zenez, proiektu ezberdin batean murgiltzeko aukera ikusi zuen eta, harez geroztik, Pelusas de Algodón marka sortu eta sare sozialetan egiten dituen diseinuak partekatzen hasi zen. Sortzen dituen produktuak azoketan eta bere sare sozialetan duen katalogoan ikus daitezke: «Gustatzen zait esatea bereziak direla, gu bezala, beganoak direlako; ez dugu animalien lumarik erabiltzen eta, artilea erabili beharrean, kotoia erabiltzen dugu». Plurala erabiltzen du, familia osoak parte hartzen duelako sortze-prozesuan: alde batetik, berak kakorratza egiten du, bere bikoteak banbuz eginda dauden egurrezko euskarrira lotzen ditu, eta, azkenik, semeak sare sozialetarako argazkiak egiten ditu. Vergarak egiten dituen diseinu koloretsuak naturan daude inspiratuta: mendian, egunsentian... Baina berari gehien gustatzen zaizkionak ortzadarren kolorekoak direla dio. Horretaz gain, belarritakoak eta azoketara eramateko beste ekoizkin batzuk sortzen hasi da orain.





BEGOÑA ALONSO | BERANGO
Poltsa termikoak eta bestelakoak

«Bezeroaren nahiaren arabera egiten ditut produktuak»

Askotariko telez egindako hamaika produktu egiten ditu Begoña Alonsok: poltsa termikoak, edozer gauza gordetzeko zorroak eta poltsak. Orain, gainera, COVID-19ak eragindako geldialdiaren ondoren, jantzigintzan ere badabil hirugarrenentzat. Ondorioz, gaineratu duenez, umetxoentzako arropak ere ekoizten hasi da.

2012an ekin zion ibilbide honi; dioenez, urte horretan, lagun batek eman zion hazien poltsa termikoen berri, eta horiek egitera animatu zen. Hasiera batean, lagunen eskariz egiten zituen, musutruk; ondoren, baina, dirua eta denbora horretan inbertitzen ari zela argudiatuta, horiek saltzen hasi zen. Han eta hemengo azoketan erakusten ditu bere produktuak, baina enkargu gehienak telefono bidez jasotzen ditu: «WhatsApp bidez, nik bidaltzen dizkiot bezeroari tela motak, eta haren nahien arabera, produktua pertsonalizatuta egiten diot».

Etxeko saloian du lantokia Alonsok; makina bigaz eta manikiez inguratuta, denetarik josteko prest dago. Produktuen prezioei dagokienez, denetarik topa dezakegu bere katalogoan: «Mototsak jasotzekoak lau euroan saltzen ditut, poltsa termikoak 10 euroan, eta poltsak bost eurotik 25 euroraino, tamaina eta materialaren arabera».





LLANOS AHIZPAK | BARRIKA
Senya, eskuz egindako bitxiak

«Produktuak egiteko material ekologikoak erabiltzen ditugu»

Pandemia garaian, Goiuri eta Mailen Llanos ahizpek Senya marka sortu zuten. Beraien asmoa zen ekoizten dituzten bitxiak mundura zabaltzea; izan ere, betidanik gustatu zaizkie eskulanak, eta, horregatik, produktuen ekoizpen-prozesua osorik egiten dute eurek. Gainera, erabiltzen dituzten materialek ingurumena ere zaintzen dutela azaldu dute: «Guri ere ekologia interesatzen zaigu, eta pentsatu genuen gure produktuak ere ekologikoak izan behar zutela».

Beraien estilo propioa duten belarritakoak eta lepokoak ekoizten dituzte; horretarako, buztin polimerikoa erabiltzen dute, material arina, iraunkorra eta moldatzeko erraza baita. Sormenetik ateratako kolore eta forma ematen diete bitxiei, eta, gero, labean gogortzen dituzte. Piezak lotzeko, altzairu hipoalergenikoa erabiltzen dute, eta eraztunak ere egiten hasi direla diote. Horretaz gain, etxea apaintzeko loreontziak, kandelak jartzeko euskarriak eta gauzak uzteko platertxoak ere sortzen dituzte. Horietarako, Jesmonite izeneko ura oinarri duen erretxina erabiltzen dute; material horrek ez dauka kimikorik, eta ekologikoa delako aukeratu dute.

Beraien produktuak www.senyajewels.com webgunean eta sare sozialetan aurki daitezke. Bestalde, azoketara joatea gustatzen zaie, «horrela, jendeak produktuak zuzenean ikus ditzakeelako».





MARI LUZ IÑARRA | GETXO-LEIOA
Landalore, xaboiak eta baltsamoak

«Kosmetika naturala da hau, beganoa, eskuz egindakoa eta bidezkoa»

Mundu osoan garapenerako lankidetzan ibili izan da Mari Luz Iñarra algortarra; horri esker, Costa Rican, produktu naturalakaz kosmetika egiten zuen emakume-talde bat ezagutu zuen, eta, hala, 2014an, proiektu berri bati ekin zion: xaboi eta baltsamo ekologiko eta beganoak ekoizteko Landalore enpresa sortu. Bost urteko ibilbidea egin zuen horretan, pandemia hasi aurretik albo batera utzi zuenera arte. Aurten, baina, horretan ibiltzea bere pasioa dela ondorioztatuta, Landalore berreskuratu eta bideari berrekin zion ekainean. Hala, hasieran sortutako 19 produktuei beste hainbat gehitu dizkio, betiere produktu naturalak, beganoak eta lokalak erabilita; azken hori ezinezkoa duenean, aldiz, bidezko merkataritzaren bidez eskuratzen ditu. Gauzak horrela, xaboiak, kremak eta serumak egiten ditu, askotarikoak. «Formula berriak bilatzen ditut uneoro, produktuen gama handitzeko», dio. Eskaintza sei eurotik 30 eurora artekoa da, produktuaren arabera. Hala ere, denen artean nabarmentzekoa seruma dela diosku: «Oso ondo saltzen da». Orain, neguan bete-betean sartzear gaudela, ezpainetarako baltsamoa ere arrakastatsua dela nabarmendu du. Hala, interesa gura duenak, sare sozialetatik Landalore bilatzea besterik ez du; «laster webgune bat izatea espero dut». Horrez gainera, azokaz azoka ere ibiliko delakoan dago; momentuz, Durangokoa izan du lehenengoa.



MENDIBIL AHIZPAK | GORLIZ
Ixaboiak, etxean eskuz egindako xaboiak



«Antzinakoak bezalako xaboiak sortzen ditugu»

Mendibil ahizpek, Ixabelek, Anak eta Marisak, beraien xaboiak ekoizten dituzte, eskuz, osagai naturalak baliatuz eta ohiturazko errezeta tradizionaletan oinarritutakoak: «Gure amonek erabiltzen zituzten modukoak dira».

Diotenez, pandemia hasi aurretik ekin zioten xaboiak sortzeari, eta, ordutik, ezagunak egin dira Uribe Kostan eta Bilbo inguruan. Hasieran, beraientzako eta oparitzeko egiten zituzten, eta, pixkanaka, geroz eta produktu gehiago sortzen hasi ziren. Egiten dituzten xaboien berria ahoz aho zabaltzen joan zen hasieran, eta, orain, azoketan eta Instagrameko @ixaboiak kontuan produktuak saldu eta enkarguak jasotzen dituzte.

Batez ere, xaboiak eta xanpu solidoa egiten dute, antzinako errezeta tradizionalak baliatuta, eta oliba-, almendra- eta errizino-olioa bezalako osagai naturalak erabilita. Horiek soda kaustikoagaz eta uragaz nahastu eta 30-40 egunez uzten dituzte ontzen, azkenean, xaboiak lortu arte. Horretaz gain, diseinu ederreko kandela beganoak ere egiten dituzte, soja-parafinagaz eta egurrezko mukiagaz. Horri esker, ez dute erleena edo artifiziala den parafina erabiltzen, eta kandelek gehiago irauten dute, astiroago erretzen baitira. Halaber, azala zaindu gura dutenentzako olioak eta lurrina besterik ez daramaten gorputzerako gantzak ere egiten dituzte.





ITZIAR AURREKOETXEA | SOPELA
Soka, makrame-poltsak eta -dekorazioa

«Lan bakoitza bakarra eta berezia da; ez dut inoiz berdinik egiten»

Orain zortzi urte hasi zen Itziar Aurrekoetxea artisautzaren eta eskulanen munduan: «Bakarkako lanean aritu eta, gutxika, makrame teknika ikasten, apaingarriak eta poltsak sortuz». Pandemiak eragindako etxealdiaren ondorioz, baina, «denbora libre gehiago nuenez», pasio hori «serioago» hartu eta Soka izeneko proiektuari hasiera eman zion iaz. Etxean egiten ditu beharrok, «edozein ordutan lan egin ahal izateko». Izan ere, azaldu duenez, ostalaritzan egiten du lan, «horrek bermatzen baitit hilez hileko diru-sarrera egonkorra», eta, aldi berean, master bat ikasten ari da. Hala, duen denbora libre apurra dedikatzen dio Soka egitasmoari, «alderantzizkoa izango balitz, ikaragarri poztuko nintzake», aitortzen du.

Dioenez, artisauaren lana ez da egonkorra; hilabete batzuk eman ditzake ezertxo ere ez saldu barik, «eta beste batzuetan lanez gainezka nago». Bere produktuak Instagrametik (@soka.macrame) saltzen ditu, eta eskariaren arabera egiten ditu lanak: «Denak dira bakarrak; ez ditut inoiz berdinak sortzen». Gainera, bezeroak aukeratu ditzake forma, kolore eta tamainak. Horretarako, lehengai onak aukeratzen dituela dio, kotoi- edo yute-soka, hain zuzen ere. Horretaz gain, bestelako materialik erabili behar badu, birziklatua izatea saiatzen da. «Materialok modaren eta diseinuaren industriatik jasotzen ditut gehienetan».



Aukera paregabeak, etxearen

Oso GIZONENTZAKO MODA

Algortako etorbidea, 59. ALGORTA
Tel.: 653 721 056
osoalgorta@gmail.com

1 **Artic berokia**
JOTT
250 €

2 **Neumel Weather botak**
UGG
179,99 €

3 **Jertsea**
ANERKJENDT
89,99 €







Her EMAKUMEEN MODA ETA IRUDI-AHOLKULARITZA

Algortako etorbidea, 53. ALGORTA
Tel.: 944 040 680
heralgorta@gmail.com

4 **Jaka alderantzikagarria**
ECOALF
225 €

5 **Motxila**
ROKA
69,95 €

6 **Txanoa**
KANGOL
72 €







ARTOLOZAGA
Tailerrak ANAIAK
Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.talleresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!





ondoan

Orrialdeotan Uribe Kostako saltokietan topa daitezkeen hainbat produktu ikusiko dituzu, zure etxetik oso hurbil. Opariak bertan eskatzeko aukera izango dute Mari Domingik eta Olentzerok. Zeren zain zaude?

Iñaki BITXITEGIA

Villamonte plaza, 3. ALGORTA
Tel.: 944 302 345
informacion@joyeriainaki.es
www.joyeriainaki.es

8 **Eskumuturrekoa**
Dendan galdetu

9 **Erlojua**
Dendan galdetu

10 **Eraztuna**
Dendan galdetu







Aldai ARTISAU-TAPIZTEGIA


Basagoiti etorbidea, 32. ALGORTA
Tel.: 944 609 031

Artisau-tapiztegia: dekorazioa, erakusketa eta tailerrak.

Oihalak eta margoturiko horma-paperak, metroka salgai.



Proktoklinika


Hemorroideak (Almorranak)

Uzkiko azkura




Uzkiko fistula

Jarri harremanetan gurekin

674 322 360 / 94 605 53 04

info@proktoklinika.eus
proktoklinika.eus

Mikeldi 13, 48200 - Durango

Mokofinentzako hurbileko auk

Eskarra taberna-itsaskitegia | Algorta



Itsaski-errazio fresko-freskoak

ESKAINTZA: Ostrak, nekora egosiak, izkira egosiak eta *zamburiñak* plantxan.



Itsaski freskoaren tenplu bilakatu da Algortako erdialdean dagoen Eskarra taberna. Tamainaz txikia izan arren, eskaintza eta kalitate handiko itsaskien zaleek badakite bertan aurkituko dituzten produktuek ez dutela parekorik eskualdean. Nekorak plantxan, Bretainiako Mont-Saint-Michel badiatik ekarritako muskuiluak edo *moules,* Galiziako *zamburiñak* edo zapo eta otarrainxken broxetak eskaintzen dituzte, besteak beste. Izan ere, Eskarran maisuak dira denetariko itsaskiak prestatzen, egosiak zein plantxan. Gainera, hotza egiten duen egunetan, itsaskien salda beroa prestatzen dute. Bertakoek diotenez, bezeroek marisko-jan txiki batez goza dezakete tabernan, diru askorik gastatu barik, ardo batez lagunduta. Izan ere, itsaskiak ondo baino hobeto marinatzeko ez dago ardo zuri on baten parekorik. Bertakoek Verdejo, Galiziako Godello eta Albariño bezalako edariak gomendatzen dituzte, baita bertoko txakolina ere. Gabonetan, beraien jakiak etxean dastatzeko aukera eskaintzen dute baita ere; horretarako, produktu egosiak gomendatu dizkigute, nekorak, magurioak eta txangurroak batik bat; plantxan egindako janariak, aldiz, bertan dastatzea askoz hobea dela diote.

ETXERA EROATEKO: Gura izanez gero, Gabonetarako angulak aurretik eska daitezke.

ERRESERBAK EGITEKO

Tel: **688 776 003** | Torrene Kalea, 1. ALGORTA | **@mariscoseskarra**

erak

Gabonetan ohitura ordezkaezina da familiagaz edo lagunakaz elkartzea bazkari zein afari ederrez gozatzeko, etxean zein kanpoan. Horretarako, hamaika aukera ditugu Uribe Kostan, baina orriotan aukeraketa berezia dakarkizuegu.

Juan Mari harategia | Areeta



Haragi ona, eta askoz gehiago

ESKAINTZA: Haragia eta jateko prest edo aurrez prestatutako plateren eskaintza zabala.



Juan Mari harategia instituzio bat da okelari dagokionez. Arretako harategi honetan, Gabonetako hitzorduetarako hain ohikoak ez diren produktuakaz hornitzeko eskaintza zabala dute: *foie*-ak, ahuntza, txerrikumea, kapoia, indioilarra, pularda, eperra, faisaia, ahatea, Alaskako izokina, Frantziako kabiarra eta askotariko okelak. Familia edo lagunei ezusteko gastronomiko bat emateko hamaika aukera dituzte, sukaldean ausartzen direnentzat. Gainera, sukaldean hain trebeak ez direnentzako, edo denboraz estu dabiltzanentzako, jateko prest edo aurrez prestatutako produktuen eskaintza zabala ere dute aukeran. Aurretiaz prestatutako jakiei dagokienez, Gabonetan hain preziatuak diren kroketak (pernil iberikoz, bakailaoz, onddoz edo otarrainxkaz beteak), arrautza beteak, piper beteak eta entsalada hotzak eskaintzen dituzte, besteak beste. Horretaz gain, berotu eta jateko prest dauden hainbat plater ere saltzen dituzte, hala nola txipiroiak tintan, bakailaoa pil-pilean, roastbeefa, barraskiloak... Ikus dezakezuenez, aukera zabala dute Gabonetan sukaldean burua ez galtzeko. Baina, horren guztiaren gainetik, labeldun okela jarraitzen du izaten Juan Mariren harategiaren berezitasuna.

ERRESERBAK: Gabon-egunetan etxera eroateko janaria gura dutenek aldez aurretik abisua ematea gomendatzen dute, «dena behar bezala prest edukitzeko».

ERRESERBAK EGITEKO

Tel: **944 644 125** | Mesedeetako Ama, 31. AREETA | **@CarniceriaJuanMari**

Gure Etxea | Itzubaltzeta/Romo



Denboraldiko eta bertako produktuak

ESKAINTZA: Bakailaoa, barraskiloak, Otxandioko bildotsa, txerrikumea...



Sukaldaritza tradizionalak eta sasoiko produktuen erabilerak bereizten du Gure Etxea taberna; horri esker, hainbat sari jaso ditu, eta telebistan behin baino gehiago agertu da. Itzulbatzeta/Romoko erdialdean kokatuta dagoen establezimendu honetan ia egunero aldatzen dute menua, hurbileko eta urteko sasoi bakoitzeko produktuetara egokitzen baitira. Arduradunak kontatzen duenez, bezeroek denboraldi bakoitzean dauden produktuak eskatzen dituzte, barazkiak batez ere; gainera, kontatzen du asko estimatzen dituztela parrilan egindako platerak. Gabon hauetan ere etxera eroateko janaria prestatzen jarraituko dute bertan; horretarako, aukera bi emango dituzte: alde batetik, puntu-puntuan, jaso eta etxean segituan jan ahal izatekoa; eta, bestetik, gura izatekotan, etxean labean azken ukitua emateko errekiak. Aurtengo bazkari eta afarietarako proposamen berezia Otxandioko ardi latxaren bildotsa izango da; hori tenperatura baxuan prestatuta saltzen dute, eta etxeko labean 20 minutuz berotzeagaz nahikoa izango da prest izateko. Horretaz gainera, askotariko eskaintza ere dute, mokofin guztiak asetzeko modukoa: barraskiloak, erreboiloa, bisigua, zapoa eta perretxikoak... Bestalde, mokadu eta pintxoz betetako barra ere eskaintzen du tabernak, baita intimitatea bilatzen dutenentzako zortzi lagunentzako txoko berezia ere.

ERRESERBAK: Aldez aurretik erreserba egitea gomendatzen dute, egun bi lehenago, gutxienez. Izan ere, lekua azkar betetzen da egunotan.

ERRESERBAK EGITEKO Tel: **944 636 880** | Aurrezki Kutxa, 14. ITZUBALTZETA/ROMO | **@gureetxea.taberna**

Zurikaldai Neguri | Neguri



Amaierarik gozoena topatzeko lekua

ESKAINTZA: Txokolate eta laranja turroia, *marron glacé* edo gaztaina konfitatua eta Nizako frutak.



Gabonetako bazkari eta afariak ezin hobeto amaitzeko, ezinbestekoa da behar bezalako azkenburuko edo postre bat izatea. Neguriko Zurikaldai gozo-dendan ezin baino hobeto dakite gozozale zorrotzenak nola ase behar diren, eta, horretarako, mimoz eta bertakoak diren lehen mailako osagaiakaz egindako gozokiz, turroiz eta pastelez gainezka dute erakusmahaia. Getxoko erdiguneko auzo horretan duten lantegian egiten dituzten produktu paregabeetatik hiru aukeratu ditugu lerrotarako: laranja azalagaz konfitatutako txokolatezko turroia, *marron glace* edo gaztaina konfitatua eta fruta naturalagaz egindako Nizako frutak. Horietaz gain, Gabonetan ezinbestekoak diren hainbat turroi ere dituzte: Caracas, gorringo eta txokolatezkoa, gorringo bikoitzekoa, koñak, Cádiz... Gura beste aukera dute bertan, denen eskura, Gabonetan ezin hobeto hornitzeko. Horiez gainera, bestelako hamaika aukera ere eskaintzen ditu Neguriko metro-geltokiaren ondoan dagoen gozotegi honek, hala nola ohiko txokolate-, mustafá eta San Markos tartak. Errege Egunari begira, nola ez, errege-opilei dedikatzen diete denbora gehien.

ERRESERBAK: Gabon-egunetarako eskaerak egiteko azkenengo eguna abenduaren 22a izango da; Gabon Zaharrerako, aldiz, abenduaren 28a. Errege Eguneko opilak urtarrilaren 5etik aurrera eros daitezke.

ERRESERBAK EGITEKO

Tel: **944 911 487** | Neguri hiribidea, 9. NEGURI |

Zer iruditzen zaizkizu kaleko Ga



MANOLI MORENO
SOPELA

Ondo iruditzen zait Gabonetan argiak jartzea. Kontua da argiaren prezioa garesti dagoela; begiratu beharko luketena hori da: argiaren prezioa, hain zuzen ere. Gabonak ere kendu behar dizkigute ala?



UNAI GAYO
SOPELA

Niri polita iruditzen zait, eta egia da Gabonetan kaleak apur bat alaitzen dituztela, baina argiaren prezioa hain garesti egonda ez dakit merezi duen. Uste dut bere neurrian jarri behar direla.



MARIA AGIRRE
SOPELA

Betidanik oso txarto iruditu zait argiak jartzea, niretzako Gabonak ospatzea ez delako hainbestekoa; marketin itzela dela deritzot. Nik ez nuke ezer egingo, ez Olentzero ez Errege Magoak, ez ezer.



IKER GOIKOETXEA
SOPELA

Niri gauza berezia iruditzen zait, bai umeentzako baita helduentzako ere. Uste dut mantendu beharreko tradizio bat dela, azken finean, Gabonak urtean behin bakarrik ospatzen dira, eta horietaz ere disfrutatu behar da.



bonetako argiak?



AITZIBER ETXEBARRIA
SOPELA

Niri ondo iruditzen zait umeek Gabonak behar dituztelako, baina arduraz jarri behar direla pentsatzen dut, gutxi kontsumitzen duten led modukoak, eta hiri batzuetan egiten dituzten gehiegikeriarik gabe.



FRANCISCO JAVIER GALLEGO
SOPELA

Niri Gabonak bereziki gustatzen zaizkit, eta ados nago kaleetan argiak jartzeagaz. Are gehiago jarriko nituzke, merkataritza sustatzen duelako eta jendea kalera ateratzera gonbidatzen dutelako.



PAULA HERNANDEZ
GETXO

Ez zaizkit Gabonak gehiegi gustatzen, baina uste dut argiakaz alaitasuna apur bat ematen dela. Hala ere, batzuetan gehiegi gastatzen da, eta, une honetan, diru hori osasuna bezalako arloetara bideratu beharko litzateke.



IÑIGO FERNANDEZ
GETXO

Jartzen dituztenak ganorazkoak diren bitartean, ondo iruditzen zait, uste dudalako giroa ematen dietela kaleei eta merkataritzari. Gainera, gehienak led argiak direnez, kontsumo gutxi izango dute, eta ez da hainbeste diru xahutzen



Oparia ala ikatza?

Barrika

Abenduak 23, eguena
18:00 | Udaletxe plazan
Familia osoarentzako antzerkia: *Azken Eguzkilorea*. Ondoren, Olentzero eta Mari Domingiri ongietorria egingo diete. bertaratzeko izena eman behar da udaleko webgunean.

Abenduak 24, berikua
12:00 | Ander Deuna aretoan
Ipuin kontalaria.

Berango

Abenduak 24, barikua
18:00 | Antzokian
Olentzerok eta Mari Domingik umeei harrera egingo diete. Joateko hitzordua eskatu behar da Berangoeta edo Santa Ana kultur etxeetan.

Erandio

Abenduak 23, eguena
18:00 | Kukularran
Olentzero eta Mari Domingiri ongietorria egiteko kalejira egingo diete. Ondoren, Xaibor.

Azbenduak 24, barikua
18:00 | Altzagan
Olentzero eta Mari Domingiren kalejira, Irailaren 23a plazatik abiatuta.

17:30 | Astrabuduan
Olentzero eta Mari Domingiren ongietorria, Ignacio Aldekoa ikastetxean.

Getxo

Abenduaren 17tik urtarrilaren 6ra
11:00-14:30 erta 17:00-21:00 | Xake plazan
Getxolandia, gabonetako umeentzako parkea.

Abenduak 23, eguena
17:00 | Andra Marin
Euskal Dantza, jolasak, eskulanak
18:00 | Areetan
Ezetz konta umeentzako antzerkia Eskoletako plazan.
19:00 | Algortan
Taberna ibiltaria ALBEko bertsolaritza-ikasleen emanaldia, San Nikolas plazan.

Abenduak 24, barikua
17:00 | Andra Marin
Kalejira Andra Mari kiroldegitik. Ondoren, Olentzeroren erretzea 19:15ean.

17:00 | Negurin
Ongi etorria Olentzerori eta Mari Domingiri, galtzagorriakaz batera, Fadurako 3. frontoian.

17:30 | Itzulbatzeta/Romon
Kalejira Olentzero eta Mari Domingigaz. Ondoren, Olentzeroren erretzea eta txokolatada Santa Eugenia enparantzan.

18:00 | Algortan
Kalejira musikatua Olentzero eta Mari Domingiri ongietorria emateko; Sarrikobasotik aterata.

18:00 | Areetan
Kalejira, Eskoletako plazatik, musikak alaitua.

Gorliz

Abenduak 24, barikua
18:30 | Eleiz plazan
Pello Añorgaren ipuinean oinarritutako Olentzero eta Mari Domingiren etorrera.

Leioa

Abenduak 24, barikua
10:00-21:00 | Kultur Leioan
Olentzero eta Mari Domingi umeakaz bilduko dira. Hitzordua aldez aurretik erreserbatu behar da .

Lemoiz

Abenduak 24, barikua
17:00 | Andrakan
Olentzerok eta Mari Domingiri harrera egingo diete Andrakan, ondore, Armintzara eta Urizarrera joango dira.

Plentzia

Abenduak 24, barikua
18:45 | Goñi Portalen
Olentzero eta Mari Domingi ikuskizunaren 40. urteurrena ospatzeko pertsonaia guztiak elkartuko dituzte beste behin.

Abenduak 29, 30 eta 31
Jai Alai pilotalekuan
Umeentzako Gabon Parkea.

Sopela

Abenduaren 23tik urtarrilaren 5era
Urgitxieta plazan
Gabonetan izotz-pista eta Txu-Txu trena egongo dira.

Abenduak 24, barikua
17:00 | Urgitxieta plazan
Olentzerok ibilaldia egingo du herritik, Udaletxeko plazara heldu arte.

Urduliz

Abenduak 24, barikua
18:00 | Igeltzerako aparkalekuan
Olentzero eta Mari Domingiri ongietorria egin ondoren, ibilaldia egingo dute herritik udaletxeko plazara arte.





Idatziozu gutuna Olentzerori!

Kaixo, Olentzero eta Mari Domingi

hiruka



Olentzero eta Mari Domingiren borda

Basoko bidea, 24
Euskal Herria

hiruka
GABONETAKO BEREZIA • 2021eko abendua


2021ari agur

Errimaz errima, urteari begira


Badoa 2021a, COVID-19az gainera, beste gai ugari atzean utzita. Horietako batzuk gogora ekarri ditugu datozen orriotara, ALBEko bertsolarien laguntzagaz.


























Santa Marinako Burdin Hesia, urtez gordetako sekretuak agerian gelditu dira berriro



Urdulizko inguruetako Burdin Hesiaren aztarnak agerian daude berriro, 2018an eta 2019an Edestiaurre Arkeologia Elkarteak egindako lanei esker. Aurten, indusketa-saio horietan egindakoen zehaztapenak batzen dituen liburua argitaratu dute,eta Gogora Institutuak, bere aldetik, aztarnak bisitatzeko panel informatiboak jarri ditu.

TESTUA: **IKER RINCON MORENO** ARGAZKIA: **IÑAKI LIBANOK UTZITAKOA** ▶

Josu Arroyo Izkoa Algorta



Bilbo eta inguruak babesteko egina, milaka pertsonaren lan nekaezina. Faxisten erasoak egin zion mina, baina Burdin Hesia zen hautsiezina!

Gerra betean ez zen izaten dudarik: bizia eman zuten hainbeste gudarik. Askok ez dute egiten honetaz berbarik, baina gure herriak badu memoriarik!

Edestiaurrek lana egin du oparo, laurogei urte ez dira alferrik igaro. Urdulizko haitz horiek diraute, luzaro, borroka duinaren aterpe, abaro..

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

COVID iraunkorra: koronabirusaren sintomak joaten ez direnean...



Hainbat ikerketaren arabera, COVID iraunkorrak 10 gaixotik bati eragin diezaioke, emakumeei bereziki. Horietako bi dira Estibaliz Pozo eta Mónica Aguilera plentziarrak, eta, eurak bezala, koronabirusaren sintomakaz jarraitzen dutenei laguntzeko COVID Iraunkorra Uribe Kosta laguntza-taldea sortu zuten urtearen hasieran.

TESTUA: **IKER RINCON MORENO** ARGAZKIA: **HODEI TORRES**

Itxaso Paya Ruiz Algorta



Arnasestuak eta sutan betondoa.
Gaixo nagoenetik jo al dut hondoa?
COVID iraunkorraren kondena sendoa,
gaitza heldu zenetik ez naiz lehengoa.

Ospitalera joan naiz, ezin dut gehiago:
egunak joan ahala ahulago nago.
Medikuak esan dit galduta zeharo:
jarrera kontua da, zure esku dago.

Saiatzen naizen arren ezin lotu bi hitz,
luzerako doala entzun dut ehun aldiz.
Askoz hobe genuke iraunkorra, guztiz,
COVIDa bera baino ikerketa balitz.

Algortako Bertsolari Eskola

Berrogei urte bete ziren iaz, 2020an, ALBE, Algortako Bertsolari Eskola, sortu zenetik



Duela 41 urte sortu zen Algortako Bertsolari Eskola, 1980an, euskara eta euskal kultura bitsa bezala hazten ari zen garaian. Ordutik, hainbat izan dira bertatik atera diren bertsolariak eta plazak. Gaur egun, eskualdean ez ezik, Bizkaian erreferentea bilakatu da ALBE, eta lau hamarkada horiei esker eskola eta bertsolaritza aldatu egin da gurean.

TESTUA: **IKER RINCON MORENO** ARGAZKIA: **ALBE** ▶

Beñat Vidal Gurrutxaga Getxo



Ze urte berezia
bi mila ta hogei.
Ez zilarrezko eta
ez urrezko eztei,
erreparatu gabe
edade krisiei...
Berrogei, errez esan,
baina da berrogei!

Ene, pandemiaren
mugak eta trabak...
Bete dugu, ezinik
ospatu erabat,
este behin aterata
lapikotik babak,
ohartzerako beste
bat, berrogeita bat!

Berrogeira heltzea
ez zen gutxi kosta,
baina ospatzerako
urte horrek, ospa!
Urteurren borobil
bat nahi bada ospa,
borobilagoa da
berrogeita bosta!

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

Historiaurreko garai guztietako 60 aztarnategi baino gehiago daude identifikatuta eskualdean



XX. mendearen erdialdetik gaur egunera bitartean, Historiaurreko 60 aztarnategitik gora atzeman dituzte Uribe Kostan. Horietan, Behe Paleolitotik Neolito-Kalkolitora arteko materialak topatu dituzte, eta, horien nondik norakoak hobeto ezagutzeko, arkeologia esperimentala erabili dute Edestiaurre taldeko kideek.

TESTUA: **IKER RINCON MORENO** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ▶

Daniel de Miguel Avecilla Getxo



Aspalditik jendea
badabil munduan,
ibili baita ere
gure inguruan;
eta nik galdera bat
darabilt buruan;
zoriontsu izango
al ziren orduan?

Matxuri, Landaluze,
Urtubi, Iturralde,
gure eskualdean
hainbeste ondare.
Lau tramankulurekin
munduaren jabe,
eta ibiltzen ziren
pasaporte gabe.

Uribe kosta dago
aztarnez beteta,
altxorrak daude nonahi
lurpean gordeta
jarraitu, segi, ekin
zizelei kolpeka,
iraganak oraina
azaltzen du eta.

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

Maiatzaren 30ean, Euskaraz *kalakalata* jarri zuen Ibilaldiak Sopela



Pandemia dela-eta, Ibilbiderik gabeko Ibilaldia izan da aurtengoa. Hala ere, ezohikotasun horrek ez zion trabarik jarri jaialdiaren helburua betetzeari, eta, besteak beste, Betiko eta Ander Deuna ikastolek lortu zuten euskara nagusi izatea Sopela udalerrian maiatzaren 30ean.

TESTUA: **IKER RINCON MORENO** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ▶

Aritz Landeta Terceño Getxo



Euskara irten zedin
berriro plazara,
kanta_ederra irten zen
bertatik bertara,
egitarau polita
galduaz ikara,
Ibilaldia_heldu zen
Uribe Kostara!

Horrenbeste plan eta
pandemia tarteko,
ez nintzen ez gai izan
ni gogoratzeko,
eguna pasatu ta
lotu nintzen seko,
espero dut pasatu
izana ederto!

Kalata hitza orain
nik dut begikoa,
berba hau ikasi dut
ez hain tipikoa,
honi esker zabalduz
nire lexikoa;
eskertzen da zuen lan
pedagogikoa.

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

Denok oroimenean gordetako udako jaiak noiz bueltatuko diren zain...



Paradoxikoa da; jendeak elkartzeko beharrik handiena izan duenean pilaketak saihestu eta segurtasun-distantzia mantentzea berebizikoa izan da. Etxeko itxialdia eta hainbat murrizketen ostean, jendeak parranda gura zuen, baina aurtengo udak ere gazi-gozo zaporea izan du, jarduerak egin diren arren, ez direlako izan udako ohiko jaiak.

TESTUA: **ANDER ZARRAGA** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ▶

Mikel Arrate Zelaia Berango



Ezagutu zintudan
zatika-zatika
ta maitemindu nintzen
hori ikusita.
Triste naizen honetan
pentsatzen jarrita
ahaztu zait noiz izan zen
gure azken zita.

Zenbat txosnako trago,
besarkada bero,
edalontzi museo
ta dantzaldi ero.
Zutaz ahaztu naizenik
ez pentsatu gero:
faltan botatzen zaitut
bi urte ta gero.

Zeinen ederrak ginen
zu ta ni, ni ta zu.
Ezin ginen banatu,
ta kasuan kasu,
noizbaiten bueltatzea
pentsatzen baduzu
pozik jasoko zaitut,
itxoiten naukazu.

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

Berde- eta natura-guneen aldeko mobilizazioak egon dira hilabeteotan Berangon eta Getxon



Ingurumena zaintzeko ekimenak ez dira gauza berria gurean, baina gizartea gero eta gehiago jabetzen ari da inguratzen gaituen natura zaintzeko beharraz. Uribe Kosta ez da salbuespena, eta gure udalerrietan hainbat ekimen egiten ari dira porlanaren «hedapen neurrigabea» geldiarazteko eta ditugun altxorrei merezi duten balioa emateko.

TESTUA: **ANDER ZARRAGA** ARGAZKIA: **IKER RINCON MORENO** ▶

Peru Irastorza Santxo Algorta



Azkorrin lehen bizipoz
zena orain hilzori;
nahiz eta deitu nahi ez
kriminal inori,
ez al da antzeko zerbait,
gaizkia eginez ongi
haren sortzaile dena
erail duen hori?

Behar dira haritzak,
pagoak, pinuak,
belaze amaigabe
zein txori-soinuak,
baina gehien behar ditu
gure autoestimuak,
konbikzio egingo diren
zalantza kimuak.

Porlanaren gurtzaile
zein kosmopaleto
horiek dioten deus
ez denez baleko,
kontzientziazio-lana
dago egiteko,
eraikuntza eredu hau
deseraikitzeko!

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

Udako ohiko festarik egon ez den arren, eraso matxistak egon dira gure herrietan



Udako jairik ospatu ez diren arren, aurten ere, emakumeen kontrako indarkeria kasuak egon dira Uribe Kostako zenbait herritan. Gizartean hain errotuta dauden jokabide horiek behin eta berriz gaitzestea ezinbestekoa da, baina, zoritxarrez, gaitz horri amaiera emateko borroka luzea izango da.

TESTUA: **ANDER ZARRAGA** ARGAZKIA: **MIKEL BENGOETXEA**

Aitor Esteban Etxebarria Itzulbatzeta/Romo



Begi biak paratu
gure barne horman:
matxista egotiko bat
al da gizonongan?
orain artean zelan
Ikusi ez dodan,
hasi naz aurreikusten
kentzeko nahiko lan.

Biolentziaren eskalak
hainbeste luzapen,
tamalez erailketek
muturra eroaten.
Eta beste muturra
zedarritu daiten:
dana ez al da hasten
pentsamendu baten?

Gizontasuna noiz da
berez gizatasun?
Banaka zein taldeka
ta garunez garun,
eskaner moregaz
xehe beha daigun:
geurez bortxa eskemarik
ez ete dakargun?

AIBE
Algortako Bertsolari Eskola

Plentziako badian ibilitako pirata eta kortsarioen kontakizunak batzen dituen liburua kaleratu dute



Plentzia itsasoari lotuta egon da beti. Arrantzak ez du pisu handirik izan bertan; bai ordea merkataritzak. Horrela, jarduera komertzial horrek eta garaiko errege-erregina eta nobleekiko harremanek aberastasuna ekarri zuten hiribildura, baina baita piratak eta kortsarioak erakarri ere, besteak beste, Pablo Amores plentziarraren liburuak dioenez.

TESTUA: **IKER RINCON MORENO** IRUDIA: **ALEX ORBE** ▶

Peru de Pedro Larrea Gorliz



Erdi Aroan sortu
zan gure Plentzia,
itsasora begira
bere esentzia.
Nahiz arrantzak ez eban
izan presentzia,
merkataritzak eukan
bertan garrantzia.

Barku merkatariek
horrenbeste etsai,
kortsario nahiz piratak
badiatik nonahi!
Johan Plasentziako
edo Anton Garai,
Billanoren atzean
abordairako zai!

Gaur egun aldatu da
Plentzian bizitza,
bukatu da kanoien
eztanda bortitza,
lasaitu itsasoa
baretu da bitsa,
baina piratak orain
kaletik dabiltza!

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

Erandioko herritarrek kutsaduragaz amaitzeko borrokan jarraitzen dute, 52 urte beranduago



Urteotan gauza asko aldatu diren arren, erandioztarrek aire kutsatua arnasten jarraitzen dutela salatu dute azkenaldian. Duela 52 urte, Anton Fernandez eta Josu Murueta hil zituen kutsadurak, eta horren aurkako manifestazioak egin ziren garaiotan. Orain, erandioztarrek berdina eskatzen jarraitzen dute: aire garbia arnastu gura dutela.

TESTUA ETA ARGAZKIA: **ANDER ZARRAGA** ▶

Arkaitz Gomez Agirre Getxo/Bilbo



Antton Fernandez eta Josu Murueta oroimenean daude bizirik gordeta. Berriro jendez zeuden kaleak beteta, oroimena bizirik kalean da eta.

Enpresa entzungorrak eta kutsadura, jasangarri denaren maila gainditu da. Etengabe gainditzen kutsadura muga, Administrazioak du horren ardura.

Arazoa oraindik bukatu ez denez, kaleak berriz bete aldarrikapenez. Pankartaren hitz lauak egi bihur bitez: Atzo, gaur eta beti, kutsadurarik ez!

ALBE
Algortako Bertsolari Eskola

Euskararen erabilera gainbeheran dagoen garaiotan, aurrera jauzia egiteko ordua heldu da



Euskararen alde inoiz baino ekimen, argitalpen eta laguntza gehiago dauden garaian, hizkuntzaren erabilerak behera egin du. Hori iraultzeko gakoak ez daude argi, baina hainbat aditu, agintari-politiko eta eragile lanean ari dira. Horrenbestez, pentsa daiteke euskararen iraultza berri baten bidean gaudela; hala ez bada, gure hizkuntzak jai dauka.

TESTUA: **ANDER ZARRAGA** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ▶

Joseba Santxo Uriarte Getxo



Euskararen herrian
erdara nagusi,
iparrean makalik
hegoan itsusi,
eskolan euskañola
etxean... ¿ahí tú sí?
Gaitz da aurre egiten
hainbeste birusi!

Dena dela ni beti
azaltzen naiz baikor,
sor bailiteke hainbat
euskal terminaitor!
Aitziber, Lizar, Diego,
Lur, Maria, Aitor,
dagokigun ardura
dezagula aitor!

Zazpi ehun mila gara,
ez gara hain gutxi!
Ongi heldu berriok,
zaharrok, berriz, eutsi;
etxean zein kanpoan
argi erakutsi
euskara ezin dela
desagertzen utzi!

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

COVID-19aren pandemiari behingoagatik agur esateko urtea izango al da 2022a?



Badirudi COVID-19a gure egunerokotasunean txertatu dela, gure artean geratzeko etorri dela, hain zuzen ere. Txertoek salbatuko gintuzten itxaropena seigarren olatuak eraman du; ezohiko egoera honetako zurrunbiloan galduta, egokitu eta 2022a hobea izatea besterik ezin dugu espero. Bitartean, ez ezazue ahaztu osasun-pasaportea!

TESTUA: **ANDER ZARRAGA** ARGAZKIA: **HODEI TORRES**

Naroa Torralba Rodriguez Larrabasterra



Bizitza aldatu zigun duela bi urte;
gaur ezkero ikasteko eman behar liguke.
Beldur, bulo, asaldura denen teilatupe:
pandemia ez da joango nekearen truke.

Zientziarena ez baita fededun kontua
ikertuz RO proteinak, tua.
Askatasuna omen kontra-argumentua:
bizitza al da aberats herrien hautua?

Egoera larria duguna aurretik
ez dena konponduko libertarismotik.
Badugu zer egina elkarren zaintzatik:
ez baita informatua baino ahaldunagorik!

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

Gehigarri berezia

2021ari agur

Algortako Bertsolari Eskola

BERTSO AGENDA

2022 / OTSAILA - MAIATZA

5 OTSAILA — GETXO



SANTA AGEDA

Getxoko baserrietatik kantuan

11 OTSAILA — ALGORTA



ABRA SARIA

Bertsolari gazteen saioa

24 OTSAILA — 20:00 ALGORTAKO AZEBARRI

ASE BERTSOZ

Bertso pikoteoa ALBEko bertsolariekin

4 MARTXOA — ERROMO

URIBE KOSTAKO TXAPELKETA

Kanporaketa saioak

URIBE KOSTAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2022

Martxoaren 4tik 26ra

11 MARTXOA — GORLIZ

URIBE KOSTAKO TXAPELKETA

Kanporaketa saioak

URIBE KOSTAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2022

Martxoaren 4tik 26ra

26 MARTXOA — ALGORTA

URIBE KOSTAKO TXAPELKETA

Finalaurrekoak eta finala

URIBE KOSTAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2022

Martxoaren 4tik 26ra

MARTXOA — GETXO



22. KORRIKA

Adi egon gure sare sozialei

MARTXOA — ERANDIO

ERANDIOKO KUKULARRA: KANPOMARTXO

Adi egon gure sare sozialei

28 APIRILA — 20:00 ALGORTAKO AZEBARRI

ASE BERTSOZ

Bertso pikoteoa ALBEko bertsolariekin

30 APIRILA — ALGORTA



BERTSO BAZKARIA

Bertso bazkari klasikoa

Bertsolariak: ZEHAZTEKO

19 MAIATZA — ANDRES ISASI MUSIKA ESKOLA



ESKOLATIK PLAZARA

Getxoko bertsolaritza ikasleak plazara hurbiltzeko ekitaldia

26 MAIATZA — 20:00 ALGORTAKO AZEBARRI

ASE BERTSOZ

Bertso pikoteoa ALBEko bertsolariekin

Jaialdia · Berezia · Jira · Txapelketa · Ase Bertsoz

www.albe.eus

albe_bertso

@albertsolari



"BERRIA ikasgela behar-beharrezkoa da, euskaraz delako eta ikaslearen mailara egokitutako edukia eskaintzen duelako"

Josune Iñarra Laskurain
Euskara irakaslea

berria ikasgela

Egunero ikasten delako

› berria.eus/ikasgela

berria zuk badakizulako





































HIRUKAlagunakaz eta bazkideakaz batera, HIRUKAren parte dira orriotan agertzen diren iragarleak. Aspaldidanik, proiektu hau babestu dute, eta bertoko kazetariek eta kolaboratzaileek landutako edukiakaz batera, orriotako paisaiaren parte dira. Hona hemen gure esker beroena.

ERRIGORA

LORALDIA
EUSKAL KULTURA GAUR

TOKIKOM

aldai
Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak
Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31



Iñaki Bitxitegia
Algorta
Villamonte plaza 3
94 430 23 45
Telletxe 1
94 460 27 41

OSABIDE
Hortz-klinika
Arantza Etxebarria
Odontologia orokorra
Ortodontzia
Periodontzia
PADI
Bidebarri 27, behea eskuina · ALGORTA
944 307 696

Getxo
KULTUR ETXEA
bizi ezaza

EROSKI

dermitek
CLÍNICA + INNOVACIÓN

EuskarAbentura
Jzioqui dugu!

sorland

GetxoGaso
GetxoGason
Euskararekin
bat!!
Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

Villamandos
Comunicación
desde 1994

Getxolan

ARTOLOZAGA
Tailerrak
ANAIAK
Mekanika · Karrozeria · Elektronika
Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.talleresartolozaga.com
Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74
BOSCH
service
Car Service

General Optica
UPV/EHUko Bizkaiko Campusa

nekatur
Euskadiko Landa Ostatuen Elkartea
Asociacion de Alojamientos Rurales de Euskadi

Zurea falta zaigu!
publi@hiruka.eus

Eskerrik asko denoi!

Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA

Itzala

Ez dakigu Aita Noelen laguntzaileetako bat den, ala Maripurtzil ote den, ipotxez mozorrotuta. Nolanahi dela ere, Olentzerori opari batzuk ostuta alde egin du. Ikusten ari zaren itzal horietatik bakarra da zuzena.

Zein da?























Hamaika ikustekoak

Aurki itzazu bi irudion artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.





Engainariak

Zazpi txatal hauetatik hiru ondoko irudi nagusitik hartuta daude eta beste laurak, berriz, engainariak dira. Bereiz itzazu.

aek euskara praktikoa

Uribe Kostako AEK

IKASTARO TRINKOAK · MAILA GUZTIAK

EMAN IZENA!

Getxo · 944 30 47 34 · lauaxeta@aek.eus
www.aek.eus/blogak/uribekosta
www.facebook.com/uribekostako.aek

GetxoGaso



Urteko 365 egunetan gaude zabalik

·Garbiketa gunea
·Denda eta okindegia
·GnG tailerra
·Solaguren Jatetxea


944 301 500

Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!

Dominoan


Bete itzazu hutsuneak argindarraren domino zati honek zentzua izan dezan.





Ebakigarriak

Aurreko jolasak bukatu ostean, hemen dituzun bi ebakigarriak moztu. Olentzero moztu eta muntatu ezazu, eta Mari Domingi, moztu eta maskara bezala erabil ezazu!





MAIUKI.BLOGSPOT.COM

hirukalagunen txokoa

Parte hartuz, sari ed

Uribekostarren ekarpenari esker egin du bidea HIRUKAk, eta halaxe egingo du hemendik aurrera ere. Egin zaitez HIRUKAlagun eta beheko produktuen zozketan parte hartu ahal izango duzu; eta daborduko baldin bazara, lerro hauen ondoko argibideei jarraitu besterik ez daukazu!



Soka

Loreontziak eskegitzeko makrame-poltsa. Kalitatezko produktuakaz eginda.



Landalore

Kalitatezko produktu naturalakaz egindako serum birsortzailea.



Ixaboiak

Antzinakoek egiten zituzten bezalako xaboi-sorta, osagai naturalakaz egindakoak.



Pelusas de algodón

Amets-harrapatzaile koloretsua, lehengai beganoakaz egindakoa.



Senya

Material ekologikoak erabilita, eskuz sortutako belarritakoak.



Ibaizabalen liburuak

Umeentzako liburu-sorta ederra, aisialdian irakurtzeko aproposak.

errak esku-eskura!

Beheko sariren bat lortzeko zozketan parte hartu gura baduzu, eman ezazu izena HIRUKA.EUS webguneko zozketen atalean urtarrilaren 3a (astelehena) baino lehenago. Zozketa bakoitzeko atal bana egongo da; eman izena dagokion lekuan.



Poltsa termikoa

Begoña Alonsok eskuz ekoitzitako poltsa termikoa, haziakaz egindakoa.



Arrain-lamina

Gyotaku **teknika baliatuta, Almudena Echevarriak inprimatutako artelana.**



Amaknives

Eskuz landutako aizto japoniarra. Kalitate handiko altzairuz egindakoa.




Arbiren liburuak

Arbi Liburuek sei liburu eder dakartzate zozkatzeko, hirunako multzo bitan.



Oveja Creativa

Martin eta Learen abentura zoragarriez gozatu ahal izateko liburu-sorta.



Donostiako Aquarium-a

Itsasoko sekretuak, zuzen-zuzenean, ezagutu ahal izateko hiru sarrera hirukoitz.

Nora goaz?

Urtez urte tradiziozkoa bilakatu zaigun Gabonetako aldizkari berezi honegaz emango diogu amaiera 2021ari, eta datorrenari zein joandakoari begiratzeko sasoia dugu oraingoa; aurrez aurre ditugun erronkei buru egiteko prestatzekoa eta, neurri berean, atzean utzitakoari, behingoagatik, agur esatekoa, hain zuzen ere.

2015eko urtarrilaren hasieran konpartitu zuen HIRUKAk bere lehenengo albistea sarean, eta hilabete bereko 22an kaleratu bere lehenengo astekaria. Horrenbestez, hedabide xume honen zazpigarren urteurrenaren bueltakoa izango da 2022a. Urteotan guztiotan, HIRUKAk hamaika oztopori eta erronkari aurre egin behar izan dizkio; 2018ko itolarritik arnasgunera atera genuen proiektua 2019an; «hil ala biziko urtea izango da hau», esan genuen horretan, eta hartu beharreko martxa eman ahal izan genion, zorionez. Hala ere, hurrengo urtean bete-betean denok kolpatu gintuen pandemiak, hein batean bada ere, proiektu honen norabidea irauli egin zuen, aurten, 2021an, oraindino zuzentzen saiatzen gabiltzana. Horren erakusgarri dugu bidean galdutako publizitatea, laguntzak eta eskualdeko udal batzuen babesa –begiratu 03. orria; Uribe Kostako 10 udalerrietatik, gaur egun, zazpik baino ez dute proiektu hau babestu aurten–.



Jakingo duzuen legez, garai latzak bizi izan ditu HIRUKAk azken urteotan. Hala ere, esan genuen legez, gurdi bete gogoz gabiltza aurrera egiteko, eta zuok, HIRUKAlagunok, gure bidelagun izatea gura dugu. Lagunduko gaituzue?

Garai latzak bizi izan ditugu urteotan guztiotan, bai, baina, 2017an esan genuen legez, gurdi bete gogoz gabiltza aurrera egiteko, eta zuok, HIRUKAlagunok, gure bidelagun izaten jarraitzea gura dugu! Asko izan zarete urteotan guztiotan gu babestu gaituzuenak; norbanako, elkarte, erakunde zein bezeroak; esker mila! Izan ere, oztopoz oztopo, zu hurbileko kontuez informatzeko, zuk euskaraz bizi eta pentsatu ahal izateko murgiltzen gara egunero-egunero tokiko euskal prentsaren abentura eder honetan.

Euskarak jauzi kuantitatibo eta kualitatiboa emateko urtea izango du 2022an. Korrikaren eta Euskaraldiaren urtea. Ekitekoa. Gurean ere, berezia izatea gura dugu; bide berri bati ekitekoa. Ilusioz beterikoa. Orain artekoak hobetu gura ditugu, esperimentatu, egokitu; baina, betiere, euskara eta tokikotasuna erdigunea izanda. Horretarako, denon gurdia den proiektu hau bide onean jartzeko eman beharreko pausoak zuokaz eman gurako genituzke. Gurdia bete ilusio eta lanez, hel diezaiogun bada erronkari! Zure ekarpen, parte-hartze, bultzada, burutazio eta proposamenen begira gaude... Gurditik tiratzeko prest? Goazen bada! ◂

Lagundu gaitzazu hobetzen

Datorren urteari begira, jauzi kualitatiboa eman gura du HIRUKA proiektu komunikatiboak. Horretarako, zuon, irakurleon, laguntza behar dugu. Zer aldatuko zenuke? Zer botatzen duzu faltan? Zer dugu hobetzekoa? Bete ezazu ondoko galdetegia...

hiruka
Prentsa euskaraz, pentsa euskaraz!



OLENTZEROREN ASTOTXOAK **BILBOKO DENDAK** AUKERATZEN DITU

Gertu daudenak,
modu **jasangarrian** eta
tokiko merkataritza zainduz.

Eta zuk?

bilbaodendak

Bilbao

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

EUSKARA, gure etorkizuna



aktuart & eneko zalduondo

jantzi!

URTARRILAK 25

EUSKARAZ
Muxikebarri
(Gorrondatxe)
18:00

Izena eman behar da
Haurtzaindegi zerbitzua
(eskatu egin behar da)

HITZALDIA

Zeuek duzue giltza. Haurren hizkuntza portaerei eragiteko bideak



Hizlaria:

PAULA KASARES

Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea.
Euskal Filologian eta Gizarte eta Kultura Antropologian lizentziatua. Soziolinguistikan aditua.

Nori zuzendua: gurasoei, irakasleei, hezitzaileei, begiraleei...

Antolatzaileak:

Getxo bizi ezazu · egizu! · senDi Getxoko familietan euskara sustatzeko proiektua · hazibideak · Euskara Bizarra Elkartea

Laguntzailea:

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Informazioa eta izena ematea: